

Ezpalak

JON TORNER

Proiektzioak, kontzertuak eta mahai-inguruak FANT jaialdian



FANT Bilboko Zinemaldi Fantastikoak hamabosgarren edizioa beteko du aurten. Maiatzaren 3tik 10era bitartean egingo da. Ohi bezala, Sail Ofizialeko film luzeen eta Nontzefilm lehiaketan saritutako film laburren proiektzioaz gain, kontzertuak eta mahai-inguruak izango dira. Maiatzaren 5ean, adibidez, Bosco el Tosco y su Puta Banda taldea izango da Azkena aretoan, eta 7an Chrome Hoof britainiarrak Kafe Antzokian. Egitarau osoa

FANT jaialdiaren webgunean kontsulta dezakezue: www.fantbilbao.net.


Euskaldunak eta dantza gala ekainaren 10ean egingo dute

URTEZ URTE sona handiagoa du *Euskaldunak eta dantza* galak, besteak beste Euskal Herriko eliteko dantzariak elkartzea lortzen duelako. Hala egingo du aurten ere, ekainaren 10ean, Bilboko Euskalduna Jauregian. Itziar Mendizabal, Mikel Jauregi, Juan Carlos Santamariaren konpainia, Aukeran taldea, Yasmina Sancayo eta Aaron Sanz izango dira aurtengo protagonistak. Nazioartean aski ezagunak dira horietako batzuk (adibidez, Mendizabal Leipzigecko Balleteko dantzari nagusia da, eta Jauregi Flandesko Balletekoa), eta etorkizunean zeresana emango dute bestetarik (Sancayok, kasurako, Dantzari Gazteen Bilboko Lehiaketa irabazi zuen iaz). Gainera, Aukerane *Gernika*, *mibise gainecko dantza* estreinatuko du galan.

Uxue Alberdi idazle eta kazetariak lehenengo eleberria plazaratu du: *Aulki-jokoa* (Elkar). 36ko gerran kokatua, hiru emakumeren istorioak jaso ditu elgoibartarrak liburu horretan. Joseba Jaka bekari esker idatzi du eleberria.

Tonino Carotone musikari iruindarrak *Ciao Mortali!* diskoa plazaratu du. Kojon Prieto y Los Huajalotes taldeko kide ohiak Italian grabatu du bere hirugarren diskoa. Aurreko bien biderei eusten dion lan berriak, eta besteak beste, Manu Chaok eta Bandabardó eta Gogol Bordello taldeek parte hartu dute.

Hezur muinetan (-3.200 / +2009) izeneko argazki erakusketa paratu dute Donostiako Kubo-Kutxa aretoan. Confocal mikroskopioak ateratako mikroargazki digitalen formatu handiko erreproduktzioak bildu dituzte.



Xavier Tarrega kataluniarrak irabazi du Basauriko kultur etxeak antolatutako Ganorabako komiki lehiaketako sari nagusia, *Saloon* lanarekin. Kataluniarrak dira bigarren eta hirugarren sariaren irabazleak ere: David Muñoz eta Javi Fernandez batetik, eta Jose Angel Labari bestetik. Orotara 89 komiki aurkeztu dira lehiaketara, eta guztiak Basauriko Pozokoetxe kultur etxean erakutsiko dituzte orain.

● **Garikoitz Mendizabal Euskal Herriko Txistulari Elkarteko lehendakariak *Gaur 8* agerkerian:** «Egindakoa mediatikoki ez baduzu esplotatzen, ez zara existitzen. Azken hamarkada hauetan, gizartea erabat mediatizatu denean, faltan dugu diskografia txukun bat, adibidez, irratietan eta telebistetan zuzeneko emanaldiak eskaintzeko. Zergatik gertatu da hori? Ez behintzat gel dirik egon garelako, begiratu bestela txistuak egin duen bide luzea. Baina egia da ez dugula jakin, beste folklore musika tresna batzuekin gertatu dena egiten: munduan libre ibili direnak, pertsona batzuk lideratuta, komertzialki edo enpresarialki begiratuta ere, nahi duzuna, baina mugitu egin dira. Alboka, txalaparta eta trikitiaz arri naiz, esaterako. Horiek euren lekua aurkitu dute».

● **Tittika Rekalte Belagileen tragedia pastoralaren idazleak *Garan*:** «Pastorala beste edozein antzerki motaren parekoa da, nahiz eta forma oso berezia duen, eta gauzak esateko, salatzeo egindako antzerkia da. Nolabait pastoralak paper hori bereganatu behar du. Hortan idazleak badu konpromiso handia. Idazleak ez du gelditu behar historiaren datu batzuk bata bestearen atzetik lerrotzekin, baina ausardia izan behar du aukeratu duen pertsonaia edo garai baten irakurketa propioa egiteko, nahiz eta kritikak jaso, nahiz eta historialariak ados ez izan, eta publikoak eskandalutzat hartu. Nik hori egin nahi izan dut eta badira bertso gordinak, gogorak, pornografikoak... Ostiko bat eman nahi izan diot ekumenikoa zen pastoral horri, sua bota eta ea eskandalua sortzen den hortik».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

MIKEL ASURMENDI

Euskara jendea da

Bidaia intimoak dokumentala
Zuzendariak: Jon Maia eta Eriz Zapirain
16. Korrika AEK / Orio Produzioak

RAMI, JESUS MARI, TEREIXA ETA MIXELERen bidaia intimoen (*Bidaia intimoak* dokumentala) bideetan abiatu naiz eta Jose Angel Irigaray poetaren ele hauek neure egin ditut:

Zure bitartez naiz jende, Euskara
zure bitartez bizitzen
hizkuntzak oro preziatzen
elkartasunean loriatzen
gorrotatzen menperakuntzak
askatasunean bermatzen
maitatzen mundu osoa.

Izanez ere, *Bidaia intimoak* poesia da. Dokumentalak Rami, Jesus Mari, Tereixa eta Mixele –eta honen amaxi– ezagutzeko irrika sortzen dizu. Euskara jendea da.

Berbak, hitzak eta eleak ez ezik, pertsonen irudiak ere mintzo dira. Pertsonen... basamor-

tuen, baserrien, karriken, herrien, hirien, mendien eta itsasoen irudiak ere mintzo dira. Hurbil-hurbilekoak eta argiak dira irudiak –Juanxo Sardon kameralariaren begi zoliak atzean direla–, ondo karratuak eta biribilduak. Elei ez ezik irudiei ere poesia darie zenbaitetan.

Baina ez, dena ez duzu poesia, ez iradokizun oro bederen. Nafarroako gobernuburu Miguel Sanz, EAeko lehendakari –probable– Patxi Lopez eta Pirinio Atlantikoetako buru Jean-Jacques Lasserre agertu zaizkizu Rami, Jesus Mari, Tereixa eta Mixeleren bideetan.

Eta galderak jalgi zaizkizu bideetan barrena: Corella horren urrun al da Rami-ren Goizuetatik? Bidaxune horren urruti Mixelen Itsasutik? Patxi Lopez-en Portugalete ez al da Tereixaren Portugalete?

Eta, beste askoren artean, konstatazio bat: Jesus Mari gauza izan da, bada, Urbia edota Gabiria Ermutik Gasteizera eramateko.

Eta, euskara jendea bada, zergatik Miguel eta Patxi eta Jean-Jacques agintariek ez dute bermatzen euskara?



Eraman, urtebeterako, 70 kanaleko TB Digitala.

Duaren prezio berean, eramán Zuntz bidezko TRIOa.*

Dúo: 22,9 € (12 M-ko TRIOA) + 29,66 € (12 M-ko TRIOA) = 52,56 €

Eskateien Zuntz bidezko TRIOa.*: 29,7 € (12 M-ko TRIOA)

Badago telebista hobe bat, eta guztion eskura dago.

Deitu 1717 telefono-libratua, eta zuzen Euskaltel zurekin hita.

2009ko maiatzaren 31ra arteko kontratazioentzat balio du. Zuntz bidezko 12 M-ko TRIOA: 29,66 € bit. Deskodetzailea ez dago sartuta. 24 habele iturriko konposimissa. Aurreziaz baxa eraman gero, 200 €-raiko ordaindu behar dira. BEZik gabe (% 36).

Logos: TCM, MGM, GOLTV, HISTORIA, Carlsberg, FOX, AXN, EUROSPORT, BZ BETIZU, CALLE 13, Discovery.

euskaltel zuretzat